

Eranskina

2023-2024 ikasturterako Zarauzko Aritzbatalde kiroldegia erabiltzeko ikasturteko prozedurak lerroak zehatzeko jarraibidea

0. OROKORTASUNAK

- 0.1. Aritzbatalde kiroldegiko funtzionamendua egokia izateko Kirol departamentuak du ikasturtean zehar prozedurak egokitu, aldatu, mugatu, bertan behera utzi edo hauen inguruan erabakitzeko eskumena.
- 0.2. Erabiltzaileak indarrean dauden arauak, gida-lerroak, irizpideak eta erabakiak beteko ditu. Beteko ez balira Kirol departamentuak horien inguruko neurriak hartuko ditu horretarako bide diren udal prozeduren bidez. Prozedura zehatzailea izapidetzeko beharra balego hau izapidetu bitartean kautelar neurria aplikatu dezake Kirol departamentuak, beti ere indarrean dagoen legeria aplikatuz, Aritzbatalde kiroldegirako sarrera debekatuta.
- 0.3. Aritzbatalde kiroldegiko tramiteak egikaritzeko, erabiltzaileak kirol departamentuarekiko egunean izan behar du,
- 0.4. Aritzbatalde kiroldegiko erabilera egiten hasteko, Kirol departamentuaren oniritzia izan behar du, hau da, aurkeztu diren dokumentuak ikuskatuta, onartuta eta ordainketa ziurtatuta egon beharko da.
- 0.5. Kirol espazioak erabiltzeko adin-baldintzak ondorengo hauek dira. Erabiltzailearen jaiotze data izango da mugarrria.
 - a) Gune termala erabiltzeko gutxienerako adina: 18 urte.
 - b) Fitness solairua erabiltzeko gutxienerako adina: 16 urte.
 - c) Igerileku handia erabiltzeko gutxienerako adina: 16 urte.
 - d) Aretoak erabiltzeko gutxienerako adina: 12 urte.
 - e) Adin txikikoak adin nagusiko pertsonen ardura eta erantzukizupean egongo dira aldiro. Igerileku ertaina eta txikiak bakarrik erabiltzeko gutxienerako adina: 11 urte.
- 0.6. Kirol departamentuak kirol espazioetan ordutegi mugak jarri ditzake adin tarte bakoitzari; erabiltzaile kopuru handia, segurtasuna, kolektibo zaugarriak izan edo bestelako arrazoiengatik.
- 0.7. Kirol departamentuak Zarauzko Udalak onartutako Hizkuntza politika bermatuko du, Aritzbatalde udal kirol instalazioan. Horretarako, euskara departamentuaren erabaki eta gidalerroei jarraituko dio.

1. BAZKIDETZA ezaugarriak eta prozedurak

- 1.1. Aritzbataldeko bazkide izateak Aritzbatalde kiroldegiko gune libre izendatutako kirol espazioen erabilera eta zerbitzuak jasotzeko aukera dakar, unean uneko aldakorra izan daitekeena.
- 1.2. Bazkideak udal kirol departamentuak zehaztutako instalakuntzako egutegi eta ordutegian zehar aipatutako erabilera onartzen du bazkide gisa altan dagoen unetik. Alta berrien matrikula: tarifaren hilabete bateko prezioa ordainduko da matrikula moduan.
- 1.3. Helbideratutako abonua hileroko eta automatikoki luzatuko dira dagokion erabilera ahalbideratu ahal izateko.
- 1.4. Helbideratu gabeko abonuen ordainketa hilabete bakoitzeko lehenengo 5 laneguneko epealdian jasota izan beharko du Udalak, erabilera egin ahal izateko. Horrela izan ezean bajatzat emango da eta zordun izatera pasako da. Egoera hori erregularizatzeko ordainketa egin beharko luke hurrengo erabilera baten aurretik.
- 1.5. Familia-unitatea honako hauek osatuko dute:
 - a) Eskatzaileak,
 - b) Bere ezkontideak (ezkontza-deuseztatze, banantze edo dibortziorik ez badago) edo izatezko bikote modura eskatzailearekin batera bizi den pertsonak (behar bezala frogatuta baldin badago), eta
 - c) Bere zaintzapean etxebizitza berean bizi diren seme-alabek (23 urtetik beherakoak). Familia liburua aurkeztuko da.
- 1.6. Adinari dagokion tarifa aldaketa, jaioteguna kontuan izan eta hurrengo hilabetean aplikatuko da automatikoki.
- 1.7. Federatuen kasuan ere, tarifa berberak aplikatuko dira, baldin eta besterik adierazten ez bada Zarauzko Udalak kirol elkartearekin egindako hitzarmenean.
- 1.8. Tarifa soziala: Zarauzko Udaleko Ordenantza Fiskalaren tarifa sozialari dagokion atalean zehazten diren irizpide tekniko, prozedura eta baldintzen arabera aplikatuko da.
- 1.9. Bazkietza, alta eman den hilabetean bertan hasi daiteke edota hurrengoan.
 - a) Alta eman den hilabeteke eguna dena dela, hilabete osoko kuota ordainduko da
 - b) Alta eman den hilabetean bertan hasteko: Alta dokumentua bete, dagokion dokumentazioa aurkeztu, eta zerbitzuaren ordainketa egin beharko da unean bertan txartelaz ala transferentzia bidez unean bertan ordainketaren ziurtagiria aurkeztuta.
 - c) Alta eman den hurrengo hilabetean hasi ahal izateko: Alta dokumentua bete, dagokion dokumentazioa aurkeztu, eta zerbitzuaren ordainketa egin beharko da. Ordainketa helbideratuta, txartelaz ala transferentziaz bidez ordainketaren ziurtagiria aurkeztuta.
- 1.10. Bazkietza-baja prozedura:
 - a) Bazkietza baja egikaritzeko dagokion inprimakia beteta eta sinatuta, Udalean aurkeztu behar da: Aritzbatalde kiroldegiko harreran, **kirola@zarautz.eus** helbidean, udaleko herritarren arreta zerbitzuan edo eta telematikoki Zarautz.eus helbidetik.
 - b) Hilaren 25a baino lehen eskatutako baja-eskaera: Kirol departamentuak onartu eta hurrengo hilabetean gauzatuko da, alegia, sartuko da indarrean.
 - c) Hilaren 25 data edota ondoren egindako baja eskaera berantiarra: Kirol departamentuak onartu eta bi hilabetera gauzatuko da, alegia, hurrengo hilabeteke kuota ordaindu behar du eskatzaileak. Hurrengo kuota kudeatzeko epe-muga gainditua

izan denez, hurrengo hilabeteko kuota ordaindu beharko du. Baja eskaera hurrengo hilabetean tramitatua izango balitz bezala izango da, hortaz, eskaera aurkeztu osteko hilabete osoan altan mantenduko da eta baja hurrengorako eman.

- 1.11. Baja automatikoa: sarrerako txartela edo hatz-marka iruzurrez erabiltzen badira, baja automatikoa eman ahal izango zaio bazkideari eta gaiari dagokion udal prozedura bidea aktibatuko.

2. IKASTARO ezaugarriak eta prozedurak

2.1. Ezaugarriak:

- 2.1.1 Kirol departamentuak du ikastaroak behar den aldiro, bertan behera uzteko, funtzionamendua egokitzeko, aldatzeko, mugatzeko, ez aktibatzeko eta bestelako erabaki guztien eskumena.
- 2.1.2 Zarauzko biztanleria mota guztiei zuzendutako talde jarduera fisiko gidatuen eskaintza da. Horretarako, kirol departamentuak eskaintza zehazten du eta komunikazio bide ezberdinen bidez honen berri eman.
- 2.1.3 Ikastaro mota ezberdinen arabera, bakoitzaren ezaugarriak eta alta eta baja prozedurak zehazten dira (ikus behean).
- 2.1.4 Kirol zerbitzuen kontratu baldintzei jarraiki eta departamentuko kontrol-taularekin kudeatuko dira ikastaro kopuruak eta hauen aktibazioa.
- 2.1.5 Departamentuko kontrol taulako gutxienekora iristen ez diren ikastaroak kirol departamentuak ez ditu aktibatuko.
- 2.1.6 Ikasturtean zehar ikastaro-talde batek gutxieneko parte-hartzaile kopurutik behera eginez gero, kirol zerbitzuen kontratu baldintzak eta ikastaroen kontrol taulari jarraiki, bertan behera uzteko erabakia har dezake. Erabakia hartu eta hurrengo hilabetetik aurrera gauzatuko da.
- 2.1.7 Kasu honetan ikasleei hilabete horretan abisua eman eta hurrengo hilabetean baja automatikoki emango zaie, eta horrek, hurrengo hilabetean kuotarik ez kobratzea dakar.
- 2.1.8 Kirol departamentuak onartutako eta indarrean dauden egutegiak beteko dira, zeinak ikusgai izango diren udaleko komunikazio bide ezberdinetan. Ikastaroek ikasturteko (hilabetekako kuota eta jarraipena) edo hiruhileko iraupena izan dezakete, ikastaro bakoitza aurrez zehaztua egongo da dagokion kuotarekin.

2.2. Ikastaro jarraien ezaugarriak eta ALTA prozedura

- 2.2.1. Alta dokumentua bete, dagokion dokumentazioa aurkeztu, eta zerbitzuaren ordainketa egin beharko da. Aritzatalde Kiroldegian zorra duenak alta tramitatu ahal izateko zor hori aurrez kitatu beharko du. Hori egin ezean ez zaio alta emateko aukerarik eskaini eta onartuko.
- 2.2.2. Ikasturteko izen emate epeak: Udalak du, kirol departamentuaren bidez, ikasturte bakoitzean epe hauek zehazteko eta aldatzeko eskumena. Udal kirol departamentuak aldiro hauen berri emango du Udaleko komunikazio bide ezberdinen bidez. Orientagarri halere, ohiko epealdiak erreferentzia gisa:

- a) **1.go izen ematea epea** (ohikoz ekaineko lehen hamabostaldian); aurreko ikasturte osoan ekainean aktibo dabiltzan ikasleek hurrengo ikasturterako izena eman ahal izateko duten aukera, fidelizazio aldia.
1. Izen-ematea ordura arteko egun eta ordutegi berdin edo antzerakoenerako (aldaketarik izan badu talde horrek berak) taldean egin dezake soilik. Beste ikastaro batean interesa izanez gero ikus 2. epea.
 2. Behin izen emate epea amaituta plaza esleitua geratuko da. Hortaz, plaza bereganatu dutenei, Udal Kirol Departamentuak lehen kuota automatikoki kobratuko die, ikastaroa aktibatuko balitz, betiere.
 3. Baja izapidetzea soilik behin ikastaroa hasita bideratu ahal izango da dagokion prozedurarekin.
- b) **2.go izen ematea epea** (ohikoz ekainaren bigarren hamabostaldian zehar); hurrengo ikasturterako ikastaroetan izena eman nahi duen orori zuzendua.
1. Emaizak: ohikoz, uztailaren bigarren astelehena baino lehen.
 2. Truke epea: ohikoz uztailaren bigarren astelehenetik hurrengo igandera bitarte. 1.epean (fidelizazio aldia) izen eman eta 2.epe horretan ere plaza egokitu zaienei 1. epekoagatik trukatzeko aldia. Truke horrek automatikoki baliogabetuko du 1. epeko alta dokumentua eta leku hori libre geratuko da. Behin epea amaituta ikastaroa hasi arte ez da aldaketa edo baja aukerarik izango.
 3. Zozketarako epea. Berriak diren ikastaroetara nahiz 1. epean bete ez diren ikastaroetan izen-emateko aukera irekia edonorentzat. Izen ematerako epe zehatza ohiko bideetatik jakinaraziko da. Honekin batera emaitzen egun zehatza ere adieraziko da.
 4. Zozketan plaza egokitzeak plaza esleitzea dakar, eta aldi berean, Udal Kirol Departamentuak lehen kuota automatikoki kobratuko die. Bi kasu horiek hórrela izango dira, betiere ikastaroa aktibatzen bada.
 5. Zozketan plaza egokitu eta 1. epean beste ikastaro batean plaza erreserbatua zutenek trukerako epea baliatu ahal izango dute. Epe jakin horretan trukearen bitartez horietako bat baliogabetzeko aukera izango dute, baja prozedura bidez. Behin epe hori amaituta izen emandako ikastaro guztietan altan egongo da honek dakarrenarekin. Truke epean baliogabetzen den ikastaroko plaza libre utziko du beste herritar batek hartzeko aukerarekin. Ikus truke epea.
 6. Behin izen emate epea amaituta plaza bereganatu dutenei Udal Kirol Departamentuak lehen kuota kobratuko die automatikoki.
- c) **3.go izen ematea epea** (ohikoz uztailaren hirugarren astelehenetik aurrera); lehenengo eta bigarrenengo izen emate epeen ostean, eta egin beharreko aldaketak eginda, libre geratzen diren plazetarako izen-ematea iritsi ahala esleituko dira.
1. Iriste hurrenkeraren araberrako epea. Epe zehatz bat jakinaraziko da ohiko bideen bitartez izen ematerako.
 2. Plaza modu honetan erreserbatzen duenak unean bertan ordainduko du ikastaroaren lehen kuota eta ikastaroa aktibatzen bada automatikoki honi hasiera emango dio saioaren lehen egunean dagokion kuotarekin.
 3. Behin izen emate epea amaituta plaza bereganatu dutenei Udal Kirol Departamentuak lehen kuota kobratuko die automatikoki.

- d) **4.go izen ematea epea**; plaza libreetan sartzeko aukera ikasturtean zehar.
1. Plaza libreak dituzten ikastaroetan, nahiz hurrengo hilabeterako bajak aurreikusten diren ikastaroetan, ikasturteko edozein unean izena emateko aukera izango da.
 2. Alta eskaera hilabetea hasia dagoela egiten bada, lehen kuota txartelarekin ordaindu beharko da derrigorrez. Hortik aurrera edota hurrengo hilabetean hasteko bada, helbideratua izango da.

2.3. Ikastaro jarraien ezaugarriak eta BAJA prozedura

- 2.3.1 Baja eskatzeko, kirol departamentuarekin ez du zorrik izan behar ikastarogileak. Behin ikastaroa hasita, ikastaro honek barne hartzen duen edozein hilabeteko 25a (barne) baino lehen formalizatu beharko da hurrengo hilabeteko kuotan baja izateko.
- a) Hilabeteko 25 egunaren ondoren egiten diren baja eskaerak bi hilabetera aplikatuko dira, hortaz, beste hilabetez du interesatuak ikastaroan plaza eta berau ordaindu beharra.
 - b) Baja ez da baimentzen ezta aplikatzen lehenengo hilabetean, izan ere, izena eman den (inprimaki prozedura bidez) plaza esleitzeak automatikoki lehen kuota ordaintzea dakar. Baja bigarren hilabetean aplikatuko da gutxienez, eta horretarako lehenengo kuota ordainduta izan behar du interesatuak.

2.4. Hiruhileko ikastaro jarraien ezaugarriak eta ALTA prozedura

- 2.4.1. Ikastaroa hiru hilabetetako jarraitasuna dagoenean hiruhileko ikastaro gisa izendatuko da. Ohikoz, gabonek eta aste santuek zatituko dute ikasturtea, indarrean dagoen egutegiaren arabera betiere.
- 2.4.2. Zehaztutako helburuak erdietsiz gero, ikastarogileak hiruhileko bakoitzaren amaieran maila gaintu dezake. Hiruhileko ikastaroen artean bi mota bereizten dira:
- A. Hiruhileko etenak:
- a. Hiruhilekoa amaitu orduko izen emate berri baten beharra duten ikastaroan ikasleak jarraipena izateko.
 - b. Bigarren eta hirugarren hiruhilekoetan bi izen-emate epe egongo dira: lehena ikasturtean ikastarorik egin ez dutenentzat. Bigarrena ikasturte horretan zehar ikastaroren batean parte hartu dutenenentzat (aurrez geratzen diren plazen arabera). Zozketa formatuan egingo da esleipena.
- B. Hiruhileko jarraiak:
- a. Hiruhilekoa amaitzear dela, ikastaroko partaideen artean bajarik aurkeztu ezean, jarraipen automatikoa ematen dieten ikastaroak talde eta maila berean.

- 2.4.3. Hiruhilekoan ALTA prozedura:

- A. Aritzbatalde Kiroldegiko kuotaren bat zor duenak alta tramitatu ahal izateko zor hori aurrez kitatu beharko du. Hori egin ezean, ez du zozketan parte hartzeko aukerarik izango ez eta altarik tramitatuko zor hori kitatu arte.
- B. Ikasturteko lehen hiruhilekorako izen ematea zozketa bidez izango da zehaztu eta argitaratutako epearen barruan.
- C. Izen emate orrian gehienez lau aukera hautatu ditzake ikastarogile bakoitzak lehenetsun arabera.
- D. Izen emate orria formalizatzeak hautatutako ikastaroren batean plaza egokitu eta ikastaro hori aktibatuz gero taldearen parte izatea dakar, ikastaroari dagokion lehen kuota automatikoki bere gain hartuz eta ordainduz.

2.4.4. Hiruhilekoan BAJA prozedura: Hiruhileko motaren arabera ezberdina da:

- A. Hiruhileko etena: Lehen kuotak jasotzen duen indarraldiarekin batera amaitzen da ikastaroa, hots, hiruhileko bakarreko ikastaroa. Hortaz, ez dago baja prozedurarik kuota bakarreko ikastaroa delako. Ikastarogileari automatikoki emango zaio baja hiruhilekoaren amaieran, bajarik kudeatu beharrik gabe.
- B. Hiruhileko jarraia: Hiruhilekoa aldatzera doanean ikastaro maila mantentzen dutenek, hau da, gainditzen ez dutenek, baja emateko aukera izango dute abenduaren erdian, ohikoz abenduak 15a (bigarren hiruhilekoari begira) eta martxoaren erdian, ohikoz 15a (hirugarren hiruhilekoari begira) baino lehen. Epe horretan bajarik aurkeztu ez eta maila horretan mantentzen denak ikastaroan bere horretan jarraitu nahi duela ematen du aditzera. Horrek hurrengo hiruhilekorako plaza bermatua izatea eta dagokion kuota automatikoki ezartzea dakarkio ikastarogileari, ikastaroa aktibatzen bada, betiere. Maila gainditzen duten ikastarogileek maila berriko ikastaroan izen eman beharko dute zehaztutako alta prozeduraren bidez.

3. UDAL PROGRAMAK

3.1 IGERIKETA SUSTAPEN KANPAINA UDAL PROGRAMA

- 3.1.1 Udaleko hezkuntza programa gisa bideratzen da Igeriketa sustapen kanpaina (hemendik aurrera ISK) eta Zarauzko Udalak kirol departamentuaren bidez kudeatzen du berau. Helburua, zarauzko eskola adineko haur guztiek igerian ikastea da.
- 3.1.2 Kirol departamentuak du programa hau behar den aldiro, bertan behera uzteko, funtzionamendua egokitzeko, aldatzeko, mugatzeko, ez aktibatzeko eta bestelako erabaki guztien eskumena.
- 3.1.3 Udal programak aparteko egutegi propioa izango du, eskola egutegietako oporraldiak eredu hartuta.
- 3.1.4 Gidalerro horien baitan arautzen da. Erreferentzia gisa oinarritzko aspektuak:
 - a) ISK Udal-programa Aritzbatalde igerilekuko begiralearen edo begiraleen saiora mugatzen da. Igerilekura sarrera-irteerak, aldagelen erabilera, gurasoen beharrak eta sortu litezkeen bestelakoak kudeatzeko-erantzukizuna Ikastetxeak du.

- b) Irakasleak ISK-saioak bertatik bertara jarraituko ditu igerilekuan, haurren ikasketa prozesuaren jarraipena egiteko eta behar den horretan begiraleekin elkarlanean aritzeko.
 - c) Ikastetxe bakoitzak ISK programaren ordezkaria izendatuko du Udaleko eskaera inprimakiaren bidez, eta berau izango da kirol departamentuarekin elkarlanean arituko dena.
 - d) Behar berezia duen ikaslearen erantzukizuna ikastetxeak du, alegia ikastetxeak jarri behar du sostengurako beharrezko giza baliabidea. Kasuan kasu era berean, ikastetxeko orientatzaileak ziurtatutako ikaslearen informazioa eta egoera aztertuko du Udalak eta giza-sostengua ezartzea une horretan bideragarria den landu.
 - e) Gutxienez astebete lehenago abisu eman gabe saiora agertu ez edo Udalak onartu gabeko zerbitzu aldaketek eragindako gastua ez du Udalak bere gain hartuko; kirol zerbitzu emaileak ikastetxeari fakturatuko dizkio monitore ordu horiek.
 - f) Iraupena: saioak eta txandak Kirol departamentuak definitu, onartu eta beharrezkoa den guztietan aldatuko ditu, Aritzbatalde kiroldegiko departamentuko beharrak lehenetsiz beti.
- 3.1.5 Beharrezko informazioa ez bada Udalean garaiz entregatzen, programa zehazteko unean Udalak esku artean duen edukiarekin ekingo du aurrera.
- 3.1.6 Ekainaren lehenengo hamabostaldirako (ohikoz ekainak 15) Kirol departamentuari telematikoki aurkeztu beharrekoa:
- a) Ikastetxeko ikasturteko egutegia
 - b) Ikasturteko ikasle zerrendak
 - c) Behar bereziak dituen ikaslearen inguruko inprimakia eta informazioa ikastetxeko orientatzaileak sinatuta.

3.2 SENIORRAK AKTIBO UDAL PROGRAMA

- 3.2.1 Zarauzko Udalak kirol departamentuaren bidez kudeatzen du Seniorrak aktibo sustapen udal programa eta beraz, Kirol departamentuak du programa hau behar den aldiro, aldatu, egokitu, mugatu, bertan behera utzi, ez aktibatu eta bestelako erabaki guztien eskumena.
- 3.2.2 Udal programa honen helburua, 65 urtetik gorako herritarrei jarduera fisikoaren bidez aktibo egoteko aukera eskaintzea da, osasun bidean. Udal programa honek aparteko egutegi propioa du, eskola egutegietako oporraldiak eredu hartuta.
- 3.2.3 Erreferentzia gisa oinarrizko aspektuak:
- a) Zarautzen erroldatuta dauden 65 urteko herritarrei eskaintzen zaie.
 - b) Doako ikastaroa da
 - c) Taldeak egiteko bereizten diren adinak ohikoz:
 - o Adin tartea 65-71
 - o Adin tartea 72-77
 - o Adin tartea 78+

- d) Asteko egun kopuru eta saioen iraupena ikasturtea hasi aurretik zehaztuko du Udal Kirol Departamentuak. Zehaztapen horrek ikasturte osorako balioko du.
- e) Egutegia urritik ekainera izango da, eskola egutegiak eredu

3.2.4 Izen ematea:

- a) Aritzatalde Kiroldegiko kuotaren bat zor duenak alta tramitatu ahal izateko zor hori aurrez kitatu beharko du. Hori egin ezean, ez zaio altarik tramitatuko zor hori kitatu arte.
- b) Plaza kopurua izen ematen den unerako zehaztuko du zerbitzua eskainiko den espazioaren arabera.
- c) Irailaren erdialdean zabalduko da epea aurrez zehaztutako leku eta moduan.
- d) Iriste hurrenkeran joango dira osatzen.
- e) Urriaren hasieran, orotara leian parte hartzaileek duten adina hartuko da kontuan dagokion taldean sartu ahal izateko.
- f) Izen ematea urtero berritu beharko da eta herritar orori baldintza berdinetan eskainiko zaio.

3.2.5 Jarraipena:

- a) Behin izen emanda plaza berea izango du ikasturte osorako.
- b) Baja emateko aukera izango du edozein unetan Aritzataldeko harreran.
- c) Hilabeteen 5 hutsegite eginez gero, plaza beste pertsona bati eskaintzeko eskumena izango du udal kirol departamentuak. Salbuespen bakarra: halabeharreko gaixoaldi argumentatua izatea.

3.3 EMAKUMEAK MUGIMENDUAN AKTIBO UDAL PROGRAMA

- 3.3.1 Zarauzko Udalak kirol departamentuaren bidez kudeatzen du Emakumeak mugimenduan aktibo sustapen udal programa eta beraz, Kirol departamentuak du programa hau behar den aldiro, aldatu, egokitu, mugatu, bertan behera utzi, ez aktibatu eta bestelako erabaki guztien eskumena.
- 3.3.2 Udal programa honen helburua da zarautzen erroldatuta dauden emakume herritarrei jarduera fisikoaren bidez aktibo egoteko aukerak eskaintzea, osasun bidean. Foru aldudiako Emakumeak mugimenduan programa eta ildo estrategikoekin bat egiten du, behar aldiro Aritzataldeko kiroldegiko doaneko sarrera baimenduz.

3.4 ANIZTASUN FUNTZIONALAK AKTIBO UDAL PROGRAMA

- 3.4.1 Zarauzko Udalak kirol departamentuaren bidez kudeatzen du Aniztasun Funtzionala aktibo sustapen udal programa eta beraz, Kirol departamentuak du programa hau behar den aldiro, aldatu, egokitu, mugatu, bertan behera utzi, ez aktibatu eta bestelako erabaki guztien eskumena.

- 3.4.2 Udal programa honen helburua da zarautzen errolatuta dauden eta dibertsitate funtzionala duten herritarrei jarduera fisikoaren bidez aktibo egoteko aukerak eskaintzea, osasun bidean.
- 3.4.3 Udalak eta kirol departamentuak kirol egokituaren inguruan dituen bestelako hitzarmen, dirulaguntza eta ekimenen osagarri da programa hau.
- 3.4.4 Eskaintza aukerak adin tarte bakoitzeko:

A. **3-11 adin arteko haur igeriketa egokitua:** Aniztasun funtzionaleko 12 urtez azpiko (LH6 arte, barne) haur zarautzarrei eskainitako zerbitzu indibidualizatua.

A. Izurdea: Ratioa 1:1. Bakarkako ikasketa prozesua.

B. Laguntza: Ratioa 1:1 Taldearekin batera.

1. Udal kirol departamentuak hiruhileko bakoitzari begira eskainiko duen saio kopurua aldatzeko eskumena du unean uneko egoeraren arabera.
2. Hiruhilekoan zehar aurrez jakinarazitako 4 saiotan kale egiten badu, edota jakinarazi gabe 2 saiotan kale egiten badu Udal Kirol Departamentuak ikastaroa amaitutzat eman dezake.
3. Izen ematea:
 - a) Aritzbatalde Kiroldegiko kuotaren bat zor duenak alta tramitatu ahal izateko zor hori aurrez kitatu beharko du. Hori egin ezean, ez zaio altarik tramitatuko zor hori kitatu arte.
 - b) Bakarkako saioen ikasturteko eskaera irailean egingo da. Irailean egin behar da ikasturte horretarako alta eskaera hasieratik hasi nahi ez bada ere. Irailean jasoko dira ikasturte osoan parte hartu nahi dutenen eskaerak eta izen emateak.
 - c) Itxarote zerrenda egonez gero (irailean egondako eskaerekin), hurrengo hiruhilekoan lehentasuna izango dute aurreko hiruhilekoan tokirik egokitu ez zaienek.
 - d) Ikasturtean zehar irailean izen eman gabeko eskaera berririk balego, unean uneko aukeretara moldatu beharko da, egongo balitz betiere.
 - e) Eskaintzako aukerak kontuan izanik 4 hauta ditzake gehienez haur bakoitzak, bere lehentasunen arabera.
 - f) Eskaerak unean uneko eskaintzara egokitzeko ikastaroetako plazen esleitzea zozketa bitartez egingo da.
 - g) Hiruhileko bakoitzerako izen ematea kudeatu beharko da, baldin eta ikastarorik gabe geratu denik ez badago. Kasu horretan, bajarik aurkeztu ezean, plaza automatikoki mantenduko zaio (hiruhileko jarraien moduari jarraiki).

- B. 12-15 adin arteko gazte igeriketa egokitua:** 12 urtetik gorako aniztasun funtzionaleko gazte zarauztarrei eskainitako zerbitzuak. Aukerak,
1. Ur prestakuntza saioa: 30 edo 60 minutuko bakarkako saioa.
 2. Tutorearekin sarbidea: Tutorea ordainketatik salbuetsia egongo da.
 3. Ur egokifit talde eskaintza.
- C. 16 urtetik gorako helduen igeriketa egokitua:** 16 urtetik gorako aniztasun funtzionaleko heldu zarauztarrei eskainitako zerbitzuak. Aukerak,
1. Ur prestakuntza saioa: 30 edo 60 minutuko bakarkako saioa.
 2. Tutorearekin sarbidea: Tutorea ordainketatik salbuetsia egongo da.
 3. Ur egokifit talde eskaintza.
- D. Egokifit**
1. Egokifit ikastaroetan parte hartzeko, lehorrean nahiz uretan, gainontzeko ikastaroen prozedura berak jarraitu behar dira.
 2. Aniztasun funtzionaleko helduen ikastaro-prezio publikoaren kasuan, onuradun izateko baldintzak udal kirol departamentuak zehaztuko ditu ordenantza fiskalean.
 3. Udal programa honek aparteko egutegi propioa izango du.

3.5 GAZTE AKTIBO UDAL PROGRAMA

- 3.5.1 Zarauzko Udalak kirol departamentuaren bidez kudeatzen du Gazte aktibo sustapen udal programa eta beraz, Kirol departamentuak du programa hau behar den aldiro, aldatu, egokitu, mugatu, bertan behera utzi, ez aktibatu eta bestelako erabaki guztien eskumena.
- 3.5.2 Udal programa honen helburua, zarautzen erroldatuta dauden gazte herritarrei jarduera fisikoaren bidez aktibo egoteko aukerak eskaintzea, osasun bidean.
- Ikastaroetan parte hartzeko, lehorrean nahiz uretan, gainontzeko ikastaroen prozedura berak jarraitu behar dira.
 - Ikastaroen prezio publikoen onuradun izateko baldintzak udal kirol departamentuak zehaztuko ditu ordenantza fiskalean.
 - Udal programa honek aparteko egutegi propioa izan lezake, eskola egutegietako oporraldiak eredu hartuta.

4. ARITZBATALDE KIROLDEGIA ERABILTZEKO KANPO ESKAERAK

4.1. Aritzbatalde Kiroldegia erabiltzeko kanpo eskaera guztiak idatziz egin behar dira, eta eskaera-mota bakoitzari dagokion udal tramiteen bidez, idatzizko Udal baimena izan aktibatzeko.

4.2. Ikasturte osoko kanpo zerbitzuen kasuan urtero egin behar da eskaera eta bide beretik, idatzizko udal baimena izan zerbitzua berrekiteko. Kanpo zerbitzu hauen erabiltzailek abonatu izan behar dute, edo Udalak hala baimenduta salbuetsita baleude, bisiten kontrol-erregistroaren bidez kudeatuko dira sarrera-irteerak.

4.3. Kirol departamentuak du kanpo eskaera hauek baimendu edo ez, eta aldiro egokitu, mugatu edo eta bertan behera uzteko erabaki-eskumena. Kirol departamentuak zerbitzua lekuz aldarazi dezake.

5. ARITZBATALDE INSTALAZIO ERABILERA ETA ERRESERBAK

5.1. Kirol Elkartek:

- a) Udal kirol departamentuak zehaztutako epeetan aurkeztu beharko du ikasturteko erabilera eskaera dagokien inprimakiaren bidez eta idatzizko udal baimena izan erabiltzen hasteko.
- b) Ez ohiko erabileren eskaerak ere udal kirol departamentuari idatz egin beharko zaizkio (baimendutako ikastartuteko erabilera egonkorretik kanpokoak).
- c) Udal kirol departamentuak du, instalakuntzen jabe den aldetik, erabileraren inguruko erabakietarako eskumena. Kasuan kasuko egoerak idatziz baimenduko ditu edo ez; eta erabilera baimenduko balu, erabilera-baldintzak zehaztu (ordaindu beharra ala ez, iraupena, ...).

5.2. Norbanakoak:

- a) Erabiltzaileek erreserba egiteko aukera izango dute udaleko ordenantza fiskaleko prezio publikoa ordainduta.
- b) **Bazkideak:**
 1. Aurre erreserba egiteko aukera du. Erabilera horrek ordenantza fiskaleko prezio publikoaren ordainketa dagokio,
 2. Bazkide gisa ordaindu ahal izateko erabilera egingo duten erabiltzaileen erdia gutxienez bazkide beharko da.
 3. Erabiltzaileen erdia ez bada bazkide, ez bazkidezari dagokion prezio publikoa ordaindu beharko da, eskatzailea bazkide izan badaiteke ere.
- c) **Eguneko sarrera eta 10eko sarrera-bonodunak:**
 1. Eguneko sarrera erabilera egin behar duen norbanakoak edo-eta legezko arduradunak erosi behar du.
 2. Sarrera erabilera egiteko unean erosi behar da, eta unean ordaindu (esku-diruz edo txartelaz).

3. Ezin da sarrera erosi eta kiroldegitik irten (bestela, erabilitzat hartuko da).
 4. Gune ezberdinak erabili ahal izango dira, betiere kiroldegitik irten gabe.
 5. Behin instalakuntzatik irtenda, sarrerak ez du baliorik izango berriro sartzeko.
 6. 10eko sarrera bonoaren diru itzulketarik ez da onartzen behin erositara.
 7. 10eko sarrera bonoa erosten den egunetik urtebeteko indarraldia izango du gehienez.
- d) **Udal programa:** Udalak udal programa izendatutako jardueretan dabiltzan erabiltzaileek udal kirol departamentuak aurrez erabakitako baldintzetan egingo dute erabilera. Kirol departamentuak uneoro izango du honen inguruko eskumena.

6. ERABILERA: ARITZBATALDE PILOTALEKUA eta SQUASH PISTAK

Aritzbataldeko pilotalekuaren eta squasha pisten erabilera egiteko aukerak honako hauek izango dira:

- 6.1. Kirol elkarteak: Udal prozeduren bidez baimenduak balira eta dagozkien baldintzetan.
- 6.2. Ohiko erabiltzaileak: hiruhileko erreserba bidez eta ordenantza fiskaleko prezio publikoa ordainduta.
- 6.3. Ez-ohiko erabiltzaileak: noizbehinkako erreserba bidez eta ordenantza fiskaleko prezio publikoa ordainduta.

6.1. Kirol elkarteak: Udal prozeduren bidez baimenduak balira eta dagozkien baldintzetan.

- a) Erabiltzaileak jokalaria federatuak izango dira ezinbestean, eta hori horrela dela ziurtatu beharko du elkarteak erabilera egiteko.
- b) Entrenamenduko edo eta partiduetarako ordutegietarako soilik izango da erabilera baimena, eta horretarako beharrezkoa den informazio guztia helaraziko dio Udalari.
- c) Partiduek lehentasuna izan dezaten (gainerako erabiltzaileekiko), data eta ordutegi zehatza jakinarazi beharko zaio (telematikoki) udal kirol departamentuari, gutxienez, astebete lehenago.
- d) Denboraldi bakoitza hasi aurretik egin behar da eskaera, Ofizialki udal erregistroan aurkeztu beharko du dagokion inprimaki ofiziala (egoki beteta eta sinatuta). Bertan, eskaeraren arduraduna zein den zehaztuko da eta baita eskatzen den denboraldiko erabilera ere. Horrez gain, lizentzia federatuak aurkeztu beharko ditu, erabiltzaile zerrenda udal kirol departamentuak eskura izan dezan.
- e) Erabiltzaileen zerrenda eta beraien lizentzia federatuak udal erregistroan, telematikoki aurkeztu beharko dira eskariarekin batera.
- f) Ordainketa salbuetsita.
- g) Onespena: Kirol departamentuak eskaera bakoitza aztertu eta idatziz baimendu beharko du erabilera, gauzatu aurretik.

6.2. Ohiko erabiltzaileak: hiruhileko erreserba bidez eta ordenantza fiskaleko prezio publikoa ordainduta.

- a) Erabilera baldintzak:
 1. Edozein erabiltzailek instalazioen irekiera ordutegi ofizialen Udalak izendatzen dituen ordutegiak. Hiruhilekoan jarraikortasuna bermatzen da.

- b) Eskaera:
 1. Udal eskaera orria beteta eta sinatuta kiroldegiko harreran entregatu edo udalean erregistratu. Bertan, hiruhileko osorako erabilera eguna eta ordutegia zehaztu behar dira.
 2. Hiruhileko erabilerak:
 1. Hiruhilekoa: urtarrila-martxoa
 2. Hiruhilekoa: apirila-ekaina
 3. Hiruhilekoa: uztaila-iraila
 4. Hiruhilekoa: urria-abendua
- c) Epeak eta onarpena:
 1. Eskaera hiruhileko bakoitzeko azken hilabeteko 1-15 artean, azken eguna barne. Hau da: abenduan, martxoan, ekainean eta irailean.
 2. Udal kirol departamentuak hilaren 16an jaso eta astebetera idatziz esleituko ditu.
 3. Esleipen modua zozketa bitartez egongo da, betiere erabilera eskaerek bat egiten badute.
- d) Ordainketa:
 1. Eskatzailearen bazkidetza egoera hartuko da kontuan kobraketa prezioa ezartzeko.
 2. Hiruhilekoaren erabilera kostua, hiruhilekoaren hasieran eta osoki kobratuko da eskatzaileak eskaera orrian zehaztutakoaren arabera eta erraztutako kontu korrontetik.
- e) Oharrak:
 1. Erabiliko ez diren egunak kobratuak izan ez daitezten erregistratutako eskaera orri ofizialean idatzita agertu beharko dira. Hori horrela egin ezean eskaerako ordu guztiak kobratuko dira.
 2. Informazio oro udal komunikazio bide orotan adieraziko da.

6.3. Ez-ohiko erabiltzaileak: noizbehinkako erreserba bidez eta ordenantza fiskaleko prezio publikoa ordainduta.

- a) Erabilera baldintzak:
 1. Udalak izendatzen dituen ordutegiak. Hiruhilekoan jarraikortasuna ez da bermatzen.
- b) Eskaera:
 1. Erabiltzaile motaren arabera:
 - a) **Bazkidea:** Hiru egun lehenago egin dezake erreserba eskaera, behin hiruhileko erabilerak zehaztuta daudenean. Aurre erreserba egin eta erabilera egunean ez agertzeak hurrengo bazkidetza kuotarekin batera zegokion tasa pasako zaio.
 - b) **Bonoa:** Erreserba unean bertan egin dezake.
 - c) **Eguneko sarrera:** Erreserba unean bertan egin dezake.
 - d) Eskaera ofizialik ez dago. Aurre erreserba telefonoz edo aurrez aurre harreran egingo da (bazkideek); erreserba aldiz aurrez aurre egunean bertan (bono eta eguneko sarrera).

- c) Ordainketa:
 1. Harrera sarbidean, erabilera egin aurretik. Aurretik ordaindu ezean ez da erabilera baimenduko.
 2. Bazkide prezioa aplikatzeko erabilera egingo dutenen erdiek gutxienez bazkide izan beharko dute.

7. ERABILERA: FITNESS

7.1. Derrigorrezkoa da:

- a) Gutxienerako adina 16 urte beteta izatea aretora sartzeko.
- b) Instalakuntzako langileen, eta kasu honetan bereziki aretoko begiralearen, esanak betetzea.
- c) Gainerako erabiltzaileak errespetatzea, mindu dezaketen jokabideak ekidinez.
- d) Aldageletan aldatzea eta takiletan uztea arropa eta ondasunak (poltsak, motxilak, zakutoak, txaketak...). Aldageletan ezin da ezer utzi.
- e) Aretora kirol arropa eta kirol oinetakoekin soilik sartzeta eta ez; txaketa, kaleko arropa, kaleko oinetakoak, txankleta, oinutsik, ...
- f) Higienea eta errespetuagatik esku-oihala / toaila ekartzea eta erabiltzea:
 1. Izerdia lehortzeko.
 2. Eserlekuak, bankuak eta gailuak toaila jarrita erabiltzeko eta lurreko ariketak toaila gainean egiteko.
- g) Ariketa amaitu ondoren gailuak garbitu eta lehortzea (bizikletak, zintak, eliptikak, ergometroak, eserlekuak, bankuak...).
- h) Edatekoak edukiontzi egokian izatea (kantinflora edo botila itxiak) eta ez; beirazko edo bestelako edukiontziak (latak, kafe edalontziak...).
- i) Aretoko eremuak eta baliabideak dagokien horretarako soilik erabiltzea.
- j) Segurtasuna eta antolaketa neurri gisa, makinaren eta baliabideen erabilera honela egitea:
 1. Erabilera hurrengo erabiltzailearen iritsiera ordenaren arabera izango da.
 2. Ezin dira makinak erreserbatu, ez norberarentzat ez beste inorentzat.
 3. Makina kardiobaskularren gehieneko erabilera iraupena: 45 minutu.
 4. Ezin dira bi makina batera erabili.
 5. Serie arteko atsedean denboretan, ezin da makina edo materialik okupatu.
 6. Indar makinak deskargatuta utzi behar dira.
- k) Materiala erabili ondoren desmontatuta jasotzea: pisuak, barrak, mankuernak, pintzak, diskoak...
- l) Materiala eta makinak behin erabilia bere lekuan jasotzea eta uztea.
- m) Makinak garbitu egin behar dira, horretarako eskuragarri dauden produktuekin.
- n) Makinaren gehieneko erabilera denbora errespetatzea, bereziki jendea zain egon daitekeenean (bertan nahiz inguruko elementuren batean denbora egiten).
- o) Indar makina gidatu nahiz libreetan, seriea amaitu orduko elementua libre uztea. Modu horretan elementua erabilgarri geratzeko da beste erabiltzaile batek baliatzeko.
- p) Lurra zikindu bada instalazioak horretarako jarrita duen fregonarekin garbitzea.

- q) Gainerako udal araudi eta ordenantzak aretoaren erabilera orduan ere betetzea.

7.2. Debekatuta dago:

- a) Entrenamendu pertsonalak zein aholkularitza planak egitea aretoan; instalazioko langileek soilik egin ditzakete, horretarako daude.
- b) Gainerako erabiltzaileei enbarazu edo gogaitzen dien edozein ekintza. Korrika, jauzi, bultza, zarata, liskarrak...
- c) Jatea.
- d) Arropa aldatzea edo arropa kenduta jardutea aldagela ez den espazio batean.
- e) Edari isotoniko, energetiko, proteiniko edo antzerakoak kiroldegi barruan prestatzea.
- f) Edari alkoholdunak instalakuntan sartzea.
- g) Materiala aretotik ateratzea eta kanpotik ekartzea. Salbuetsita kirol begiraleek onartutako material txikia errehabilitaziorako.
- h) Luzaketak egiteko koltxonetan oinetakoekin sartzea.
- i) Une horretan erabiltzen ari ez den makina bat okupatzea. Ezingo da atsedena egin bitartean makinarik okupatu, ez eta baten erabilera egiten ari den bitartean bigarren bat okupatu ere.
- j) Mankuerna, barra eta diskoak lurrera botatzea, lurrean utzi egin behar dira materiala eta gainerako erabiltzaileak zaintzeko.
- k) Indar ariketetan oihuak egitea.
- l) Entrenamendua hiru lagun baino gehiagoko taldetan egitea, kirola egiteko gunea da.
- m) Ariketak egiteko magenesioa erabiltzea.
- n) Material bakoitza dagokion gunetik ateratzea erabili ahal izateko, pasilloetan bereziki.
- o) Erabiltzaile bakoitzak aretoetako lehioak itxi edo irekitzea. Hori instalakuntzako langileak egingo du egoki ikusiz gero.

- p) Gainontzeko erabiltzaileen pribatutasuna errespetatzeko grabatu edo eta argazkirik ateratzea, /2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa betetzeko.

8. ERABILERA: GUNE TERMALA

8.1. Derrigorrezkoa da:

- a) Gutxieneko adina 18 urte beteta izatea eremura sartzeko.
- b) Txankletak erabiltzea.
- c) Erabilera baimena eskatzea medikuaren agiria aurkeztuta:
 - 1. Haurdun dauden emakumeek.
 - 2. Adineko pertsonak eta bihotzeko gaitzak, diabetesa, edo hipo/ hipertentsioa dituzten pertsonak.
- d) Hidromasajea:
 - 1. Sartu baino lehen dutxatzea.
 - 2. Txanoa erabiltzea.

3. Iraupena gehienez: 15 minutu.
- e) Saunan:
1. Sartu baino lehenago dutxatzea.
 2. Higieneagatik gorputzaren azpian toaila jartzea (sauna lehorrean).
 3. Iraupena gehienez: 15 minutu

8.2. Debebatuta dago:

- a) Segurtasuna eta osasuna arriskuan jartzen duen edozein jarduera egin edo gaitz kutsakorrekin sartzeari.
- b) Produktu pertsonalak erabiltzea (xaboia, kremak,...).
- c) Jatea edo edatea, betiere ura ez den edozer.
- d) Esku-oihala eta igeriketako materiala ez den beste ezer sartzeari.
- e) Gainontzeko erabiltzaileen pribatutasuna errespetatzeko grabatu edo eta argazkirik ateratzea (Datu baseen 3/2018 Lege Organikoa).

9. ERABILERA: ALDAGELA EGOKITUAK

9.1. Aldagela egokituak egoera hauetan dauden erabiltzaileek erabili dezakete:

1. Mugikortasun guztiz mugatua dituzten erabiltzaileakak
2. Aniztasun funtzionala dutenak ohiko aldagelak erabiltzeko zailtasunarekin
3. Laguntzailea behar izatea

9.2. Eskaera orri bidez egingo da eskaera idatziz. Aldagela egokituaren eskaeraren zergatia azalduko da eta egoera hori ziurtatzen dituzten agiriak eta txostenak aurkeztuko dira (salbuetsita, gurgildun aulkiak erabiltzen dituztenak).

9.3. Udalak idatziz erabakiko du nori baimendu erabilera.

9.4. Aldagelan ezingo da ezer utzi Aritzbataldeko erabilera egin bitartean. Horrela beste norbaitek erabiltzeko aukera ahalbidetuko da.

10. ERABILERA: GALDUTAKO GAUZEN KUTXA

10.1. Galdutako gauzak gehienez hilabetez jasoko dira horretarako jarria dagoen kutxan. Udal kirol departamentuak erabakiko du zein unetan egin kaxaren hustuketa.

10.2. Erabiltzaileek faltan duten zerbait somatu orduko harreraren egin dezake kutxan begiratu ahal izateko kontsulta eta bertatik bideratuko zaio egiaztatzeri.